



Zumaiaiko Udala

UROLA ITSASADARRA BABESTEKO ETA MANTENTZEKO PLAN BEREZIA

2014ko martxoa

A. DOKUMENTUA MEMORIA II. LIBURUKIA



mue

MIRUA²¹

**Patxi de Assas
Yagüe**

I LIBURUKIA

A.1 DOKUMENTUA

MEMORIA INFORMATIBO ETA ZURIGARRIA

A.2 DOKUMENTUA

DIAGNOSTIKOA

A.3 DOKUMENTUA

PLAN BEREZIAREN HELBURUAK ETA ANTOLAKETA PROPOSAMENAREN OINARRIAK

II. LIBURUKIA

A.4 DOKUMENTUA

EKINTZA PLANA

III. LIBURUKIA

A.5 DOKUMENTUA

PARTAIDETZA PLANA

2014ko martxoa

Zuzendaritza teknikoa:

Zumaiako Udala

Lantaldearen zuzendaritza eta koordinazioa:

Ekolur Ingurumen Aholkularitza, SLL.

Lantaldea:

Ekolur Ingurumen Aholkularitza, SLL.

Pedro Areta Morondo - Biologoa

Tomas Aranburu Calafel – Nekazaritzako Ingeniari Teknikoa

Nerea Egia Larrinaga – Ingurumen Zientzietan Lizentziatua

MMEJ arkitektura - SLP

Mikel Azkona Uribe - Arkitektoa

Mikel Larratxe Berazadi - Arkitektoa

Javier Puldain Huarte – Arkitektoa

Mirua 21

Itziar Eizagirre Irureta - Abokatua

Patxi de Assas Yagüe- Abokatua

A.4 DOKUMENTUA

EKINTZA PLANA

AURKIBIDEA

1. Kapituluua SARRERA	1
2. Kapituluua BESTE DOKUMENTU BATZUETAN GOGOAN HARTUTAKO JARDUKETAK.....	3
2.1. EAEko HEZEGUNEEN LAPen 1. ALDAKETA.....	3
2.2. 'ES2120004 UROLA ITSASADARRA' KBeren KUDEAKETA PLANA	3
2.3. BESTE PROIEKTU ETA PROGRAMA BATZUK	5
3. Kapituluua EKINTZA PLANAREN EGITURA.....	7
3.1. ESKU-HARTZE EREMUAK	7
3.2. ESKU-HARTZE AZPIEREMUAK	9
4. Kapituluua LEHENTASUNEZ KUDEATU BEHARREKO ESPARRUAK.....	14
5. Kapituluua JARDUKETA GLOBALAK	18
5.1. INGURUMEN-INFORMAZIOAREN JENDARTERATZEA ETA SENTSIBILIZAZIOA	18
5.2. NABIGAZIOA ETA IBILGUARI LOTURIKO JARDUERAK	25
5.3. EHIZA	27
5.4. HERRI ONURAKO MENDIA ETA MENDI BABESGARRIA.....	28
6. Kapituluua JARDUKETAK ESKU-HARTZE EREMUEN ARABERA.	31
SANTIXO.....	32
BOKALEA.....	84
ARTADI.....	99
BEDUA.....	153
OIKIAKO ERRIBERAK.....	230
SOBURUTZALDEA.....	251

IRUDIEN ZERRENDA

1. Irudia Esku-hartze eremuak.
2. Irudia Esku-hartze azpierrezuak.
3. Irudia Lehentasunez kudeatu beharreko esparruak.
4. Irudia Ibilbideak eta ingurumen-sentsibilizazioa.
5. Irudia Nabigaziorako elementu lagungarrien proposamena.
6. Irudia %50etik gorako maldak dituzten eremuak.
7. Irudia Herri Onurako Mendi ala Mendi Babesgarri izendatuak izateko proposatu diren azpierrezuak.

ARGAZKIEN ZERRENDA

1. Argazkia Informazio gune baten adibidea.
2. Argazkia Hegaztien behatoki baten adibidea (Txingudi).
3. Argazkia Behatoki baten barrualde baten adibidea (Mendixur).

TAULEN ZERRENDA

- 1.Taula Funtsezko elementuetarako jarduketa bereziak. 'ES 2120004 Urola Itsasadarra' Kontserbazio Bereziko Eremuaren Kudeaketa Plana.
- 2.Taula Esku-hartze eremuak. Azalera eta azalera osoaren ehunekoa.
- 3.Taula Esku-hartze azpierrezuak eta zonakatzeko xehatua.
- 4.Taula Jarduketa-ildoan arabera jarduketak.
- 5.Taula Jarduketak lehentasun mailaren arabera.

INFORMAZIO- ETA ANTOLAMENDU-PLANOEN ZERRENDA (E. DOK PLANOAK)

Plano Zk.	Izenburua	Mota
15	Esku-hartze eremuak	Antolaketa
16a	Jarduketak 1. Santixo esku-hartze eremuan	Antolaketa
16b	Xede irudia 1. Santixo esku-hartze eremuan	Informazioa
17a	Jarduketak 2. Bokalea esku-hartze eremuan	Antolaketa
17b	Xede irudia 2. Bokalea esku-hartze eremuan	Informazioa
18a	Jarduketak 3. Artadi esku-hartze eremuan	Antolaketa
18b	Xede irudia 3. Artadi esku-hartze eremuan	Informazioa
19a	Jarduketak 4. Bedua esku-hartze eremuan	Antolaketa
19b	Xede irudia 4. Bedua esku-hartze eremuan	Informazioa
20a	Jarduketak 5. Oikiako erriberak esku-hartze eremuan	Antolaketa
20b	Xede irudia 5. Oikiako erriberak esku-hartze eremuan	Informazioa
21a	Jarduketak 6. Soburutzaldea esku-hartze eremuan	Antolaketa
21b	Xede irudia 6. Soburutzaldea esku-hartze eremuan	Informazioa

1. Kapitulu SARRERA

Ekintza Plan hau Diagnostikoaren fasean egindako aurretiko azterketatik abiatzen da, horretan espazioaren funtsezko elementuak (habitata, espezieak, ekologia edo paisaia-balioa duten natur elementuak) eta lehengoratzea (ingurumenarena edota paisaiarena) behar duten eremu andeatuak hauteman dira.

Diagnostiko horretatik abiatuta, eta aukera, mehatxu, indargune eta ahulezien analisisian oinarrituta (AMIA analisisa), Plan Bereziaren bitartez lortu nahi diren berariazko helburuak ezarri dira, *A.3 Plan Bereziaren Helburuak eta Antolaketa Proposamenaren Oinarriak* dokumentuan jasotakoak. Helburu horiek honako jarduketa-ildo hauetan banatu dira:

- 1.- **Natur balioen** babesa, hobekuntza eta lehengoratzea.
- 2.- **Natur baliabideen** kontserbazioa, hobekuntza eta berreskurapena.
- 3.- **Paisaia-balioen eta kultur ondarearen** babesa eta lehengoratzea.
- 4.- **Erabileren** arautzea, **ingurumen-informazioaren jendarteratzea eta sentsibilizazioa**.

Baina Plan Bereziak harago joan beharko luke, eta helburu horiek ekintza zehatzetan gauzatzeko moduak zehaztu, intentzio onen zerrenda huts batera baino ez murriztu gabe. Hartara, zehaztapen ahalegin bat egin da jarraian aurkeztuko den Ekintza Planean.

Lehenik eta behin, azpimarratu beharko lirateke eremu honen beraren inguruan egin diren beste dokumentu batzuetan gogoan izan diren jarduketak; halaber, haien betetze-maila eta Plan Bereziaren xedeekiko identifikazio-maila aztertu beharko litzateke, komenigarritzat jotzen bada, aurretik aipatu jarduketa-ildoekin bat datozen eta aurrera eraman diren ala burutu ez diren jarduketa horiek Planean txertatzeko. Hori da dokumentu honen bigarren kapituluaren xedea.

Bigarrenik, Ekintza Planaren egitura azalduko da. Horri dagokionez, komeni da aipatzea, gogoan izan dela aurretik aipatu jarduketa-ildo ezberdinen arabera egituratzeko aukera. Haatik, aukeratu da jarduketak lurraldea banatu den 'esku-hartze azpieremuen' arabera antolatzea. Esparru osoak Urolaren estuarioa babesteko eta kontserbatzeko osoko izate bat eratzen duela aintzat hartuta, zenbait 'esku-hartze azpieremu' bereizi dira, hogeita hamaika, zehazki, antolaketarako helburuekin bat datozenak; helburu horiek, era berean, elkarren artean harremana daukaten jarduketetan gauzatzen dira.

Azpieremu horiek sei esku-hartze esparrutan banatzen dira, eta eremuaren espazio bereziei dagozkien; halaber, horien antolaketa xedeak batera deskribatu dira, Plan Bereziak horietako bakoitzarentzat bilatzen duenaren ikuspegi globala izateko asmoz.

Baina bada Ekintza Planerako horrelako egitura mota bat aukeratzeko arrazoi pragmatikoago bat, hartara, Ekintza Planean aurreikusitako jarduketa multzoa kartografikoki gauzatzeko orduan, argitasuna lehenetsi da, eta jarduketak esparru bakoitzari dagozkion planoetan jaso dira, zehaztasun-maila handiagoa lortuz, haien eskala handiagoari esker.

Proposatzen diren jarduketak hainbat izaritakoak dira, hala lurralde-mailan nola ikuspegi ekonomikoan zein konplexutasun teknikoari dagokionean. Gogoan har daiteke ere espazioaren funtsezko

elementuekiko edota kontserbaziorako lehentasunezko helburuekiko harremana, zuzena ala zeharkakoa. Hori dela eta, jarduketaren definizioarekin hasi aurretik, lehentasunezko kudeaketa esparruei buruzko kapitulu bat gehitu da, horretan jarduketa bakoitzari esleituko zaion lehentasun-maila islatuko da.

Bestalde, badira esku-hartze esparruetarako ezarri dena baino esparru zabalago batean definitu beharreko hainbat jarduketa. Proposamen horiek Plan Bereziaren esparru osoan ulertu behar dira, nahiz eta horietatik jarduketa zehatzak eratorriko diren, dagokien esku-hartze esparruan identifikatuko direnak. Ibilbide sare bat sortzeaz (aisialdikoak eta didaktikoak), hainbat behaketa-puntu ezartzeaz edo ibilgu osoko nabigazioari loturiko jarduketaren moduko proposamenei buruz ari gara. Proposamen horiek, izaera globalekoak, berariazko kapitulu batean jaso dira.

Amaitzeko, Ekintza Plana helburuak lortzeko buruenik aukeraturiko jarduketetan zehazten da. Aipatu bezala, Ekintza Plana sei esku-hartze esparrutan egituratu da, eta bakoitzaren inguruko hainbat alderdi (deskribapena, helburuak, antolaketa irizpideak, jarduketaren zerrenda) jasotzen dituen fitxa bana egin da.

Esku-hartze esparru bakoitza esku-hartze azpieremutan banatu da, zenbait jarduketa biltzen dituztenak. Esku-hartze azpieremu horietarako bi fitxa egin dira: alde batetik, jarduketa fitxa bat sortu da, zeinean antolaketa helburuak zehazten eta jarduketaren definitzen baitira; bestalde, esku-hartze azpieremu horiei hirigintza-fitxa bana dagokie, zeintzuetan *C. Hirigintza arauak* dokumentuan era orokorragoan eta eremu zehatz bakoitzerako ezarri den erabilera eta jardueren arautzea zehazten baita.

Nolanahi ere, azpimarratu beharra dago, esku-hartze azpieremu guztien hirigintza fitxetan zehaztu den moduan, ingurumena hobetzeko edo berreskuratzekeo jarduketak azpieremu guztietan baimenduko direla, oraingo Ekintza Planaren jarduketa zehatzen artean jaso ez badira ere.

2. Kapitulua BESTE DOKUMENTU BATZUETAN GOGOAN HARTUTAKO JARDUKETAK

A.2 Diagnostikoa dokumentuan zenbait plan eta proiektuek, eremu osorako edo horren hainbat zatitarako, gogoan hartutako proposamen anitzak zehaztasunez jaso dira. Proposamen horiek 2.3. *Eremuaren kudeaketan eragina izan duten beste plan batzuk* idazpuruan kontsulta daitezke.

Atal honetan ez gara emandako informazioan geldituko ezta hori errepikatzen hasiko ere, eremu zehatzetarako jarduketa hautabide ezberdinak kontuan izateko balio izan digun arren; ostera, aintzat hartuak izan diren edo indarrean dauden planen jarduketetan jarriko dugu arreta. Zehazki, indarrean dauden bi planetan aurreikusitako jarduketak aztertuko ditugu, Plan Berezi honen Urolaren itsasadarra babesteko helburuekin bat baitatoz.

- EAEko Hezeguneen Lurralde Arloko Planaren 1. Aldaketa (2012/12/30)
- 'ES 2120004 Urolaren Itsasadarra' Kontserbazio Bereziko Eremuaren Kudeaketa Plana (2012/10/23)
- Beste proiektu eta programa batzuk

2.1. EAEko HEZEGUNEEN LAPen 1. ALDAKETA

EAEko Hezeguneen Lurralde Arloko Planaren 1. Aldaketak "(...) Korta inguruan, betegai eta berdintzegai den" espazioari (Gorostiagako ibarra) ezarritako kategoria aldatzen du "(...) izan ere, errealitate bakarra eta homogeneoa osatzen du".

LAPen 1. Aldaketaren esparruan, 2007an idatzi zen aurreproiektuak, Aldaketaren II. eranskin gisa txertaturikoak, eremuaren ingurumena berreskuratzeko zenbait jarduketa proposatzen ditu. Aurreproiektuak jarduketetarako aurrekontu bat jasotzen du, jarraian laburbilduko dena: lursailen balorazioa: 13.750,00€ (0,25 €/m²–ko balioa aintzat hartuta) eta jarduketaren egikaritzea: 339.326,00 €.

LAPen 1. Aldaketa onartu berriak Gorostiagako betelanaren eremua lehengoratzeko orain arte egindako proposamenak garatu eta zehaztuko dituen proiektu bat egiteari ateak zabaltu dizkio.

2.2. 'ES2120004 UROLA ITSASADARRA' KBEn KUDEAKETA PLANA

KBEn Kudeaketa Planak, 2012ko urrian onarturikoak, Planak berak ezarritako funtsezko elementuetarako hainbat jarduketa berezi hartzen ditu barne, hots, estuariorako eta duna-sistemarako. Jarraian aipatu jarduketak jaso dira, Plan Bereziaren helburuekin bat datozenak:

ESTUARIOA			
Neurria	Neurketa / Un	Salneurria	Guztira € (6 urte)
AP1. Gorostiagako betelanean Padura berrezarri (7 ha) AP1. Gorostiagako zabaldegian padura-sistema berrezarri, betegarriak kenduz, lursailaren malda egokitu eta ibilgua zabaldu, lursailen jabegoa publiko bihurtuz.	ha	150.000 €/ha	1.050.000€
AP2. Beduako penintsulan padura-sistema berrezarri (0,8 ha), lezoiak egokituz eta uharte izaerara bihurtuz.	ha	150.000 €/ha	120.000€
AP3. LasaldeBerriko (Oikia) astigar zurien basoa (0,97 ha) haltzadi bihurtzeko borondatezko akordioak bultzatu.	ha	50.000 €/ha	48.500€
2.AC.1 Jarduketa paisaiaren birsorkuntzarako eta itsasadarreko ertzetako berezko habitatak lehengoratzeko aplikatu da. Kasu honetan, lurzoru urbanoak (Korta industrialdea) edo azpiegiturek (N-634 eta GI-3760 errepideak, trenbidea, bideak, etab.) mugatzen dituzten trantsizio eremuak sortu dira, zuhaitzak birlandatuz, padura-guneak babesteko dituzten pantaila lanak egin ditzaten. Halaber, ur-ertzeko landaredia lehengoratu da estuarioaren bi ertzetan, Korta industriadetik uretan gora, KBE tartearen hasieraraino (4,60 ha).	Proiektu idatzia eta gauzatua	200.000	200.000€
2.AC.2. <i>Euskal Autonomia Erkidegoko trantsiziozko eta itsasbazterreko uren egoera ekologikoaren jarraipen sareak</i> Urolaren itsasadarrean jasotako datuen jarraipena egitea. "Ona" baino egoera ekologiko okerragoa erregistratuz gero, arrazoiak aztertuko dira, eta, beharrezkoa bada, egoera bihurtzeko berariazko neurriak hartuko dira.	Txostena	400	2.400€
2.AC.4 Flora espezie inbaditzaileak ezabatu, <i>Spartina alterniflora</i> eta <i>Spartinapatens</i> bereziki, eta ukitutako eremuak lehengoratu. Eskuzko teknikak eta lokalizatuak lehenetsiko dira, makineria ala fumigatze estentsiboaren aurrean. Floran aditua den norbaitek zorrozki gainbegiratu du erauzketa. Lehenengo erauzte kanpaina eta mantentzeko ondorengo kanpainak hartzen ditu barne.	Proiektu gauzatua	-	60.000 €
2.AC.5 Estuarioko habitaten (1130, 1140, 1310, 1320, 1330 eta 1420) jarraipena, okupatzen duten azaleran aldaketarik ematen den eta eboluzioa nolakoa den ebaluatzeko, baita habitat ezberdinen arteko konexioa eta horietako bakoitzaren egitura-eboluzioa aztertzeko. Horretarako, kontserbazio egoeraren garapena analizatzeko behin betiko estazioak ezarriko dira. Artadi eta Beduako eremuaren (EB KOD 9340) kontserbazio egoera onaren kontrola ere egingo da.	Txostena	3.000	9.000€
2.AC.8. Flora mehatxatuko komunitateak aldian behin monitorizatu (bi urtetik behin). Beharrezkoa denean, horien iraunkortasunari eta hedatzeari laguntzeko neurriak hartu.	Txostena	3.000	9.000€
2.AC.10. Hegaztidi habiagile eta negutarraren urteroko errolda kanpainekin jarraitu.	Txostena	3.000	18.000€
2.AC.14. Ingurumen-heziketa eta sentsibilizaziorako proiektu bat garatu, estuarioko sistemaren kontserbazioaren garrantziari buruzkoa, eta herri-erabileraren kudeaketarako beste proiektu bat sortu (2. AC.15 jarduketa). Gogoan hartuko ditu, estuarioaren balio adierazgarrienak ezagutzera emateko, ibilbideak diseinatzea eta behatokiak zein panelak ezartzea. 8.D.4. Zuzentarauan adierazitako irizpideei egokitu beharko zaie.	Proiektu gauzatua		68.000€
Era berean, honako baterako jarduketa hauek dira aplikatzekoak: 2.AC.3: estuarioan zehar dauden isuriak erauzte, sare nagusira konektatuz eta arazketaren bitartez. Oikia eta Artadiko saneamendu sarea hobetzea ("2003-2006 epean Gipuzkoako Lurralde Historikoan saneamendu azpiegiturak eraikitze Hitzarmena" 2007-2011 aldira zabaltzeko akordioari esker) eta 2.AC.11 (uretako hegaztientzat EAEko estuarioek duten garrantziaren azterketa: EAEko estuario guztietarako baterako jarduketa).			
ESTUARIO FUNTSEZKO ELEMENTUA GUZTIRA			1.575.900€

DUNA-SISTEMA			
Neurria	Neurketa / Un	Salneurria	Guztira € (6 urte)
AP4. Duna-sistemaren eremu sentikorrenak babesteko proiektu bat idatzi eta burutu, honakoak barne: - Dunetako landarediaren oinkatzea saihesteko ixte-lanak burutu. - Pasabide goratuak eraiki oinezkoentzako hautabide gisa. - Seinalatutako ibilbideak sortu eta jendarteratzeko panelak ezarri, estuarioen eta duna-sistemen eremu adierazgarriak eta haien natur balioak ezagutzera emango dituztenak. - Eremuan mehatxaturik edo desagerturik dauden hareatzetako flora espezieak berreskuratzeko lanak burutu, horien artean: <i>Chamaesycepeplis</i> eta <i>Ononisramosissima</i> . - Natura interpretatzeko eta ingurumen-heziketarako planak eta herri-erabilera kudeatzeko planak egin.	Proiektu gauzatua	-	200.000 €
2.AC. 4. Flora espezie inbaditzaileak erauzte eta ukitutako eremuak lehengoratu. Eskuzko teknikak eta lokalizatuak lehenetsiko dira, makineria ala fumigatze estentsiboaren aurrean. Floran aditua den norbaitek zorrozki gainbegiratuko du erauzketa. Lehenengo erauzte kanpaina eta mantentzeko ondorengo kanpainak hartzen ditu barne.	Proiektu gauzatua	-	60.000 €
2.AC.6 Duna-sistemako habitaten jarraipena egin, okupatzen duten azaleran aldaketarik ematen den ebaluatzeko eta haien arteko konexioa zein haien egitura-eboluzioa aztertzeke. 2.AC.8 Hautemandako espezie mehatxatuen egoera ezagutzen laguntzen duten flora komunitateen jarraipena egin, kontserbazio egoeraren, eboluzio demografikoaren eta haien habitatak ukitzen dituzten asaldatzeen diagnostikoa txertatuz, aipatu populazioen egoera mantendu edota hobetzeko xedeaz. Jarduketa bi ekintza biltzen ditu: - Intereseko habitatak aztertzeke behin betiko estazioak ezarri. - Flora mehatxatuaren jarraipena egin. Bi urtetik behin txostenak aurkeztu.	Txostena	12.000	12.000€
Era berean, estuario funtsezko elementurako proposatu diren 2.AC.14 eta 2.AC.15 jarduketak ere aplikagarriak dira.			
DUNA-SISTEMA FUNTSEZKO ELEMENTUA GUZTIRA			296.000 €

GUZTIRA	1.871.900 €
----------------	-------------

1.Taula Funtsezko elementuetarako jarduketa bereziak. 'ES 2120004 Urola Itsasadarra' Kontserbazio Bereziko Eremuaren Kudeaketa Plana.

Egikaritu gabeko jarduketak Plan Bereziaren Ekintza Planaren barruan sartu dira, eta, zenbait kasutan, zenbatespen ekonomikoa gaurkotu egin da proposamenak lortutako zehaztasun maila handiagoaren arabera.

2.3. BESTE PROIEKTU ETA PROGRAMA BATZUK

Jarraian esparruan aurrera eraman diren edo gaur egun egiten ari diren beste jarduketa batzuk aipatuko dira, hauek ere Plan Berezian ezarritako helburuekin bat datozenak:

Flora exotikoaren erauzketa:

Urtero Gipuzkoako Foru Aldundiak [Mendi eta Natura Ingurumenaren Zuzendaritza] flora exotikoko espezieak erauzteko kanpainak burutzen ditu, hala Santixo inguruan nola gainontzeko itsasadarreko ertz landaredunetan. Bigarren fasean, ingurune horietako berezko landare autoktonoak landatzen dira ere.

Zumaiako Udalak eta Zumaiako Natur Taldeak ere espezie exotikoak erauzteko aldian behingo kanpainak sustatzen dituzte.

Euskal Autonomia Erkidegoko trantsiziozko eta itsasbazterreko uren egoera ekologikoaren jarraipen sarea

2004. urtean Eusko Jaurlaritza trantsiziozko eta itsasbazterreko uren egoera ekologikoaren jarraipena egiten hasi zen, EAEko gainazaleko ur-masen kalitatea jagoteko sarearen baitan. Sare horren xedea uren egoera ekologikoa aztertzea da, Uraren Esparru Zuzentarauaren irizpideak jarraituz, analisi biologiko, fisikokimiko eta hidromorfologikoen bitartez. Egoera kimikoa aztertzeko gai kutsatzaileen kontzentrazioaren eboluzioaren jarraipena egiten da, lehentasunezko substantzietan arreta jarritz, eta, gainera, horiek eragindako kutsadurari aurre egiteko estrategiak ezartzen dira. Jarraipen sareak hiru estuario-estazio ditu, esparruan ala aldirietan kokaturikoak, bai eta ibai-estazio bat ere, esparrutik uretan gora, Aizarnazabalgo udalerrian dagoena. Horietan arrainen eta makroalgen laginketa ere egiten da.

Oikia eta Artadiko auzoetako saneamendu-sarea hobetzeko proiektua (Uraren Euskal Agentzia, URA/005A/2010).

Gaur egun egikaritze-fasean.


"Santixo hondartza berreskuratzeko proiektua. Getaria eta Zumaiako udalerriak" delakoaren idazketa.

Itsasertzaren eta Iraunkortasunaren Zuzendaritza Nagusiko Gipuzkoako Kosta Zerbitzuak eskakizuna egin dio Ministerioari "Santixo hondartzaren ingurumena lehengoratzeko proiektua. Zumaiako eta Getariako udalerriak" egin dezan; baina proiektua egitea onartzeke dago oraindik.

3. Kapituluak EKINTZA PLANAREN EGITURA

3.1. ESKU-HARTZE EREMUAK

Plan Bereziaren esparrua sei esku-hartze eremutan banatu da. Hurrengoak dira:



1. Irudia Esku-hartze eremuak. Egilea: Ekolur, SLL.

Esku-hartze eremuak	Azalera	Plan Bereziaren %
E.E.1.- Santixo	177.897 m ²	%11,10
E.E.2.- Bokalea	116.675 m ²	%7,28
E.E.3.- Artadi	371.140 m ²	%23,15
E.E.4.- Bedua	539.347 m ²	%33,64
E.E.5.- Oikiako erriberak	262.705 m ²	%16,39
E.E.6.- Soburutzaldea	135.398 m ²	%8,45

2.Taula Esku-hartze eremuak. Azalera eta azalera osoaren ehunekoa.

Eremuok **Esku-hartze eremuak 15.planoan** kartografiatu dira.

Esku-hartze eremuak espazio babestua banatu den esparruak dira. Banaketaren xedea Ekintza Planean aurreikusitako jarduketaren ikuspegi osoa eta, aldi berean, nahikoa zehatza ematea da. Nabarmendu beharra dago mugarriztatze praktikoa dela, nolabaiteko arbitrariotasun maila bat baduena, beste era batzuetan ere bururatu baitzitekeen. Nolanahi ere, esparruaren diagnostikoa egin bitartean jasotako ezagutzek, dauden erabilera eta jarduera arazoak barne, banaketa era honetan egitera bultzatu gaituzte. Gainera, sarreran aipatu den moduan, banaketa horrek aurreikusitako jarduketak zehaztasun maila handiagoaz ikusten lagunduko digu, esku-hartze eremu bakoitzari dagokion planoetan.

Zenbait kasutan, duten babes-mailari loturiko ezaugarri homogeenak izateagatik bereizi dira, beste kasu batzuetan, aldiz, duten kalifikazioa edo egoera administratiboa nagusitu da, eta bestetan, azkenik, erabilera nagusiak hartu dira aintzakotzat. Dena dela, denek dute berezko izaera.

Esku-hartze eremu bakoitzerako fitxa bat egin da, esparruaren deskribapenaz gain, horretarako helburu orokorrak eta berariazkoak ere badakartzana, jarduera irizpideekin batera.

ESKU-HARTZE EREMUA			
DATU OROKORRAK			
AZALERA			
SAILKAPENA			
ZONAKATZE XEHATUA			
	GUZTIRA		
ESKU-HARTZE AZPIEREMUAK			
ESKU-HARTZE EREMUAREN DESKRIAPENA			
HELBURU OROKORRAK, BERARIAZKO HELBURUAK ETA JARDUKETA IRIZPIDEAK			
APLIKAGARRIAK DIREN PLAN BEREZIAREN HELBURU OROKORRAK			
ESKU-HARTZE EREMURAKO BERARIAZKO HELBURUAK			
JARDUERA IRIZPIDE ETA HELBURU OROKORRAK			
ANTOLAKETAN ETA KUDEAKETAN KONTUAN HARTU BEHARREKO BALDINTZATZAILEAK			
PROPOSATURIKO JARDUKETEN ZERRENDA			

3.2. ESKU-HARTZE AZPIEREMUAK

Esku-hartze eremuak azpieroemutan banatu dira, zeintzuetan Ekintza Planean aurreikusitako jarduketak zehazten baitira. Aurretik aipatu eremuen artean banatzen diren hogeita hamaika azpieroemu dira orotara. Honako hauek:

Esku-hartze eremuak	Esku-hartze azpieroemuak	Azalera (m ²)	Zonakatze xehatua
E.E.1 Santixo	1-01 "Santixo hondartza"	33.927	g. Hiri-hondartza i. Ekipamenduak
	1-02 "Santixoko dunak"	73.710	a. Babes berezi zorrotza
	1-03 "Santixoko padura"	70.260	a. Babes berezi zorrotza
E.E.2 Bokalea	2-01 "Urolaren bokalea"	116.674	k. Portu eremua
E.E.3 Artadi	3-01 "Urola I (Zubiaundia-EDAR Basusta)"	112.959	a. Babes berezi zorrotza h. Ubide nagusia j. Komunikazioen Sistema Orokorra
	3-02 "Zubiberria"	2.223	e. Berreskuratu beharreko eremuak
	3-03 "Floresko ontziralekua"	2.384	e. Berreskuratu beharreko eremuak
	3-04 "Artadia"	201.023	a. Babes berezi zorrotza
	3-05 "Floresko nekazaritza gunea"	17.380	b. Babes berezi bateragarria
	3-06 "Artadiko paisaiaren babesa"	35.171	c. Paisaiaren babesa
E.E.4 Bedua	4-01 "Basadizar"	31.368	d. Ekosistemen hobekuntza
	4-02 "Urola II (EDAR Basusta-Bedua)"	104.255	a. Babes berezi zorrotza h. Ubide nagusia
	4-03 "Usurbiribillaga"	94.741	a. Babes berezi zorrotza
	4-04 "Gorostiaga"	74.597	e. Berreskuratu beharreko eremuak
	4-05 "Sanmigelbaso"	119.062	b. Babes berezi bateragarria
	4-06 "Basustagainako mendi-mazela"	34.879	b. Babes berezi bateragarria
	4-07 "Basustagaina"	8.939	c. Paisaiaren babesa
	4-08 "Kanteragaina"	39.459	a. Babes berezi zorrotza
	4-09 "Beduako irla"	11.976	a. Babes berezi zorrotza d. Ekosistemen hobekuntza
	4-10 "Beduako nekazaritza gunea"	9.926	f. Nekazaritzarako intereseko eremuak
	4-11 "Beduako auzoa"	10.140	i. Ekipamenduak
E.E.5 Oikiako erriberak	5-01 "Urola III (Bedua-Yartzako ubidea)"	75.241	h. Ubide nagusia
	5-02 "Urolaren ibaiertzak (Bedua-Yartzako ubidea)"	47.136	d. Ekosistemen hobekuntza
	5-03 "Oikia-Dornutegi nekazaritza gunea"	118.761	f. Nekazaritzarako intereseko eremuak
	5-04 "Dornutegiko basoa"	15.630	a. Babes berezi zorrotza b. Babes berezi bateragarria
	5-05 "Torre"	5.938	c. Paisaiaren babesa
E.E.6 Soburutzaldea	6-01 "Soburutzaldeko nekazaritza gunea"	39.281	f. Nekazaritzarako intereseko eremuak
	6-02 "Urolaren ibaiertzak (Yartza-Errotagain)"	42.662	d. Ekosistemen hobekuntza
	6-03 "Urola IV (Yartza-Errotagain)"	28.649	h. Ubide nagusia
	6-04 "Mantzisidor"	21.456	d. Ekosistemen hobekuntza
	6-05 "A-8 autobidea"	3.350	j. Komunikazioen Sistema Orokorra

3.Taula Esku-hartze azpieroemuak eta zonakatze xehatua.


Esku-hartze azpieroemu horiek berariazko zonakatze xehatua dute gehienetan, eta, hortaz, erabilera eta jarduera arautze ezberdina ere. Azpieroemuen hedadura aldakorra da, eta, hein handi batean, oraingo Ekintza Planean jarduketa zehatzak proposatzearen arabera da.

Aurreko taulan ikus daitekeen moduan, azpiero bakoitzaren kodea dagokion esku-hartze eremuari loturik dago. Hartara, 5-04 'Dornutegiko basoa' azpiero '5. Oikiakoerriberak' esparruaren barruan dagoen azpiero bati dagokio.

Azpiero horietako bakoitzeko fitxa bat egin da, zeinetan proposamena deskribatzen eta zuzitzen baita, han gauzatutako jarduketaren zerrenda eranstarekin batera.

Esku-hartze azpiero						
DATU OROKORRAK						
AZALERA						
SAILKAPENA						
ZONAKATZE XEHATUA	<table border="1"> <tr> <td></td> <td></td> </tr> <tr> <td></td> <td></td> </tr> </table>					
ESKU-HARTZE EREMUA						
PROPOSAMEN OROKORRAREN DESKRIBAPENA ETA ZURIBIDEA						
PROPOSATURIKO JARDUKETEN ZERREDA						
PROPOSATURIKO JARDUKETEN DESKRIBAPENA						

Orobat, C. Hirigintza Arauak dokumentuan aurreko taulan aipatu azpiero bakoitzaren hirigintza fitxa jaso da.



2. Irudia Esku-hartze azpierrezuak. Egilea: Ekolur, SLL.

Esku-hartze eremuen kasuan bezala, azpierrezuak ere eskala handiagoan kartografiatu dira, **Esku-hartze eremuak eta azpierrezuak 15.planoan**.

Azkenik, jarduketak esku-hartze azpieroemu bakoitzaren esparruan deskribatu eta zenbakitu dira, esku-hartze eremuari, esku-hartze azpieroemuari eta jarduketari loturiko kode baten arabera.

Horrela, 01.01.05 jarduketa A.I.1 Santixo eremuari, 1-01 'Santixo hondartza' azpieroemuari eta azpieroemuan proposaturiko 5. jarduketari dagokio, esate baterako.

PROPOSATURIKO JARDUKETEN DESKRIBAPENA				
JARDUKETA:				
JARDUKETAREN HELBURUA				
DESKRIBAPENA				
JARDUKETA-ILDOA		LOTURA DUTEN JARDUKETAK		
LEHENTASUNA		AURREIKUSITAKO GAUZATZEKO EPEA		BURUTZEKO EPEA
AURREIKUSITAKO AURREKONTUA				
KOD.	IZENBURUA	KOPURUA	UN. PREZIOA	ZENBATEKOA (€)
GUZTIRA				
FINANTZAKETAREN ERANTZULEAK		GAUZATZEAREN ETA JARRAIPENAREN ARDURADUNAK		
ERREFERENTZIAKO DOKUMENTUA				
JARDUKETAK UKITZEN DITUEN LURSAILAK				

Jarduketa bakoitzaren fitxa dagokion esku-hartze azpieroemuaren deskribapenaren esparruan jaso da.

Gainera, jarduketa bakoitza aurreko kapituluetan definituriko jarduketa-ildoekin lotu da, jarraian aurkeztuko den moduan:

Jarduketa-ildoak	Jarduketa
1.-Natur balioen babesa, hobekuntza eta lehengoratzea.	01.01.04: Hiri-hondartza eta duna aitzindariaren arteko mugetan itxura malgua ezarri eta aldiari behin ikuskatu.
	01.02.02: Batasunaren intereseko habitata babestu.
	01.02.03: Landaretza exotikoa murriztu edo ezabatu Santixoko dunan.
	01.02.07: Zuloagako barrutian dauden espezie exotikoen eta inbaditzaileen azterketa.
	01.03.02: Landaretza exotikoa murriztu edo ezabatu Santixoko paduran.
	01.03.03: <i>Spartina alterniflora</i> ezabatzeari eta <i>Spartina maritima</i> berreskuratzeari buruzko ikerketa eta azterketa.
	01.03.04: Padura berreskuratzeko lanak.
	03.04.03: Intereseko espezieen jarraipena egin urtean behin.
	04.01.01: Basadizarreko lubetan zuhaixkez osatutako hesi bat landatu.
	04.01.03: Basadizar ibarrean padura berreskuratu.
	04.04.01: Gorostiagako betelanaren eremuan padura berreskuratzeko proiektua.
	04.04.02: Gorostiagako betelanak ukitzen dituen lursailak desjabetu eta publikoak bihurtu.
	04.09.01: Beduako uharte berreskuratu.
	05.02.01: Landaretza exotiko inbaditzailea murriztu edo ezabatu Oikiako ibaiertzetan.
	05.02.02: Ibaiertzetako landaredia berrezarri Oikiako erriberan.
	06.02.01: Landaretza exotiko inbaditzailea murriztu edo ezabatu Soburutzaldeko ibaiertzetan

Jarduketa-ildoak	Jarduketa
	06.02.02: Ibaiertzeko landaredia berrezarri Soburutzaldeako erriberan.
	06.02.04: Urlehortarrentzako urmaelak egokitu Soburutzaldean
	06.04.01: Mantzisorreko lursailak desjabetu.
	06.04.02: Mantzisorreko lursailetan kantauriar haltzadia berrezarri.
2.- Natur baliabideen kontserbazioa, hobekuntza eta berreskuratzea.	01.01.02: Santixo hondartzako saneamendu proiektua.
	01.03.06: 1-03 azpierrearen (Santixoko padura) titulartasun-aldaketa.
	03.01.04: Santixo auzoko saneamendua ezkeraldeko kolektorearekin lotzeko proiektua egin.
	03.01.05: Trantsiziozko ur-masaren Egoera Ekologikoa jarraipena egin, urtean behin.
	03.02.03: Zubiberri ondoko partzela berreskuratu, ingurumen eta paisaia aldetik.
	03.04.04: Artadirako Herri-Onurako Mendi eta Mendi Babesgarria izendapena eskatu.
	03.06.02: Kantauriar artadia berrezarri San Miguel de Artadin.
	04.05.02: Baso misto atlantikoa berrezarri Sanmiguelazpian.
	04.05.03: Sanmigelbasoaren Mendi Babesgarria izendapena eskatu.
	04.06.01: Baso misto atlantikoa berrezarri Plantioaldean.
	04.06.03: Plantioaldearen Mendi Babesgarria izendapena eskatu.
	04.08.02: Basoberriaren Mendi Babesgarria izendapena eskatu.
	05.04.01: Baso mistoa berrezarri Dornutegin.
	06.03.01: Urola-F ur-masaren Egoera Ekologikoa jarraipena egin, urtean behin.
3.-Paisaia-balioen eta kultur ondarearen babesa eta lehengoratzeta.	06.05.01: Ingurumen Ikuskatze-Programaren Kontrola (A-8 autopista).
	01.02.05: Kai-muturreko harri-lubetaren inguruko areak berreskuratu.
	02.01.01: Amarralekuak arautu, antolatu eta txukundu (Bokalea).
	03.01.01: Amarralekuak arautu, antolatu eta txukundu (Artadi).
	03.01.02: Ezkeraldeko ibaiertzeko pareta zaharberritu.
	03.01.03: Ibaiertzeko pasealekuaren heskaia indarberritzeko zuhaixkak landatu.
	03.02.01: Zaborra bildu eta garbiketa lanak egin Zubiberriko ondoko partzelan.
	03.02.02: Amarralekuak eta utzitako txalupak kendu.
	03.03.01: Floresko ontziralekuaren eraikina eraitsi.
	04.01.03: Basadizar ibarrean padura berreskuratu.
4. Erabileren arautzea, ingurumen-informazioaren jendarteratzea eta sentsibilizazioa.	04.11.01: Beduako ontziola zaharberritzeko proiektua.
	04.11.02: Bedua auzoaren osotasunezko berreskuratze eta zaharberritze proiektua
	01.01.01: Santixo hondartzako sarbide berria egiteko eta ekipamendak bertan kokatzeko proiektua
	01.01.03: Hondartzako sarbide berrik oinezkoentzako pasabide berria egokitu.
	01.01.05: Sentsibilizatzeko eta jendarteratzeko jarduketak (Santixo hondartzan).
	01.02.01: Dunan zeharreko oinezko ibilbideak berrantolatu eta arautu.
	01.02.04: Ekipamendua eta jolas-tokia lekuz aldatu.
	01.02.06: Sentsibilizatzeko eta jendarteratzeko jarduketak (Santixoko dunetan).
	01.03.01: Santixo hondartzako egungo sarbidea itxi eta bidezidorra berdiseinatu.
	01.03.05: Sentsibilizatzeko eta jendarteratzeko jarduketak (Santixoko paduran).
	02.01.02: Santixo hondartzara iristeko pantalana lekuz aldatu.
	02.01.03: Bainatzeko ingurua balizez mugarritu.
	02.01.04: Erribera kaleko kaiko pantalana lekuz aldatu.
	03.03.02: Atsedeen-lekua prestatu Floresko ontziralekuan.
	03.04.01: Artadiko bidexkak egokitu.
	03.04.02: Artadin begiratokiak eraiki.
	03.06.01: San Miguel de Artadiko begiratokia eraiki.
	04.01.02: Hegaztien behatokia eraiki eta informazio taula jarri Basadizarren.
	04.05.01: Sanmigelbasoko bidexka egokitu.
	04.06.02: Basadizar-Basustagaina bidexka egokitu.
	04.07.01: Informazio gunea ezarri Basustagainan, ibilbide sareari buruzkoa.
	04.08.01: Kanteragainan begiratokia egokitu.
	06.02.03: Informazio gunek Soburutzaldean.

4.Taula Jarduketa-ildoen arabeko jarduketak.

4. Kapitulua LEHENTASUNEZ KUDEATU BEHARREKO ESPARRUAK

Ekintza Planaren barruko jarduketak lurralde edo ekonomia izari ezberdinak dituzte eta esparru babestuan funtsezko elementutzat hartuak izan direnen gaineko eragin zuzena ala zeharkakoa dute. Hortik abiatuta, komenigarritzat jo da jarduera bakoitzerako lehentasun maila bat ezartzea.

Hiru lehentasun maila definitu dira: handia, ertaina eta txikia. Horretarako, honako irizpide hauek izan dira oinarri:

- Funtsezko elementuen kontserbazioan edo hobekuntzan eragina izatea.
- Erasandako funtsezko elementuen kontserbazio egoera.
- Lurralde antolaketarako tresnen edo behin betiko onarturiko babes figuren jatorria.
- Lursailen jabegoa.
- Gauzatze beharra, horietatik eratorriko diren beste jarduketa batzuk ahalbidetzeko.

Ezarritako lehentasun mailak ez dakar berarekin lehentasun altuko jarduketak lehenengo egitea, izan ere, hori une honetan aztertze zailak diren beste faktore askoren mende baitago (hirigintza- ala lege-prozesuak, aukeren sorrera, finantziario bilaketa, etab.).


Nolanahi ere, komenigarritzat jo da balorazio hau ezartzea lehentasunezko kudeaketa behar duten eremuak hautemateko. Zentzu horretan, lehentasun altuko zenbait jarduketa biltzen dituzten eremu bi antzeman dira:

1.- Santixoko esku-hartze eremuaren multzoa.

2.- Gorostiagako betelana

Lehenengo kasuan, hiru esku-hartze azpieremuetarako (1-01 '*Santixo hondartza*'; 1-02 '*Santixoko dunak*'; eta 1-03 '*Santixoko padura*') lehentasunezko jarduketak ezarri dira eta horiek espazioko funtsezko elementuetako biren gain eragiten dute (duna-sistema eta padura). Gainera, hurrenez hurrengo lurralde antolaketarako planek (Hezeguneen LAP) eta babes-figurek (KBE) eremu horren babesa eta lehengoratzeari ezarri dute. Beste alde batetik, herri-jabari izateak jarduketen kudeaketa eta gauzatzea errazten du. Azkenik, lehentasunezko jarduketak hauteman dira, horien gauzatzeak hobetzeko beste jarduketa batzuk egitea baldintzatzen baitu.

Gorostiagako betelanaren kasuan ('Soroberriak'), lehentasuna eremua padurara lehengoratzeari da, padura espazioko funtsezko elementutzat jo baita. Jarduketa, indarrean den Hezeguneen LAPen 1. Aldaketan eta 'ES2120004 Urolaren Itsasadarra' KBEn Kudeaketa Planean jasotzen da. Kasu honetan, jabego pribatuko azpieremua da (4-04 '*Gorostiaga*'), nagusiki, horren zati bat Zumaiaiko Udalarena bada ere.



3. Irudia Lehentasunez kudeatu beharreko esparruak. Egilea: Ekolur, SLL.

Lehentasuna	Jarduketak
Handia	01.01.01: Santixo hondartzako sarbide berria egiteko eta ekipamenduak bertan kokatzeko proiektua
	01.01.02: Santixo hondartzako saneamendu proiektua
	01.02.01: Dunan zeharreko oinezko ibilbideak berrantolatu eta arautu
	01.02.04: Ekipamendua eta jolas-tokia lekuz aldatu
	01.03.01: Santixo hondartzako egungo sarbidea itxi eta bidezidorra birdiseinatu
	04.01.01: Basadizarreko lubetan zuhaixkez osatutako hesi bat landatu
	04.04.01: Gorostiagako betelanaren eremuan padura berrezartzeko proiektua
	04.04.02: Gorostiagako betelanak ukitzen dituen lursailak desjabetu eta publikoak bihurtu
Ertaina	01.01.04: Hiri-hondartza eta duna aitzindariaren arteko mugetan itxitura malgua ezarri eta aldian behin ikuskatu
	01.02.02: Batasunaren intereseko habitatak babestu
	01.02.03: Landaretza exotikoa murriztu edo ezabatu Santixoko dunan
	01.02.07: Zuloagako barrutian dauden espezie exotikoen eta inbaditzaileen azterketa
	01.03.02: Landaretza exotikoa murriztu edo ezabatu Santixoko paduran
	01.03.03: <i>Spartina alterniflora</i> ezabatzeari eta <i>Spartina maritima</i> berreskuratzeari buruzko ikerketa eta azterketa
	01.03.04: Padura berreskuratzeko lanak
	02.01.02: Santixo hondartzara iristeko pantalana lekuz aldatu
	02.01.04: Erribera kaleko kaiko pantalana lekuz aldatu
	03.01.04: Santixo auzoko saneamendua ezkeraldeko kolektorearekin lotzeko proiektua egin
	03.01.05: Trantsiziozko ur-masaren Egoera Ekologikoa jarraipena egin, urtean behin
	03.04.01: Artadiko bidexkak egokitu
	03.04.02: Artadin begiratokia eraiki
	03.06.01: Artadiko San Migeleko begiratokia eraiki
	03.06.02: Kantauriar artadia berrezarri Artadiko San Migelen
	04.01.02: Hegaztien behatokia eraiki eta informazio taula jarri Basadizarren
	04.05.01: Sanmigelbasoko bidexka egokitu
	04.05.02: Baso misto atlantikoa berrezarri Sanmigelazpian
	04.06.01: Baso misto atlantikoa berrezarri Plantioaldean
	04.06.02: Basadizar-Basustagaina bidexka egokitu
	04.08.01: Kanteragainan begiratokia egokitu
	05.02.01: Landaretza exotiko inbaditzailea murriztu edo ezabatu Oikiako ibaiertzetan
	05.02.02: Ibaiertzetako landaredia berrezarri Oikiako erriberan
	06.02.01: Landaretza exotiko inbaditzailea murriztu edo ezabatu Soburutzaldeako ibaiertzetan
	06.02.02: Ibaiertzetako landaredia berrezarri Soburutzaldeako erriberan
	06.03.01: Urola-F ur-masaren Egoera Ekologikoa jarraipena egin, urtean behin
Txikia	01.01.03: Hondartzako sarbide berritik oinezkoentzako pasabide berria egokitu
	01.01.05: Sentsibilizatzeko eta jendarteratzeko jarduketak (Santixo hondartzan)
	01.02.05: Kai-muturreko harri-lubetaren inguruko areak berreskuratu
	01.02.06: Sentsibilizatzeko eta jendarteratzeko jarduketak (Santixoko dunetan)
	01.03.05: Sentsibilizatzeko eta jendarteratzeko jarduketak (Santixoko paduran)
	01.03.06: 1-03 azpieremuaren (Santixo padura) titulartasun-aldaketa
	02.01.01: Amarralekuak arautu, antolatu eta txukundu (Bokalea)
	02.01.03: Bainatzeko ingurua balizez mugarritu
	03.01.01: Amarralekuak arautu, antolatu eta txukundu (Artadi)
	03.01.02: Ezkeraldeko ibaiertzeko pareta zaharberritu
	03.01.03: Ibaiertzeko pasealekuaren heskaia indarberritzeko zuhaixkak landatu
	03.02.01: Zaborra bildu eta garbiketa lanak egin Zubiberriko ondoko partzelan
	03.02.02: Amarralekuak eta utzitako txalupak kendu
	03.02.03: Zubiberri ondoko partzela berreskuratu, ingurumen eta paisaia aldetik
	03.03.01: Floresko ontziralekuaren eraikina eraitsi
	03.03.02: Atsedon-lekua prestatu Floresko ontziralekuan

Lehentasuna	Jarduketak
	03.04.03: Intereseko espezieen jarraipena egin urtean behin
	03.04.04: Artadirako Herri-Onurako Mendi eta Mendi Babesgarria izendapena eskatu
	04.01.03: Basadizar ibarrean padura berrezarri
	04.01.04: Landare-hesia landatu Basustan
	04.05.03: Sanmigelbasoaren Mendi Babesgarria izendapena eskatu
	04.06.03: Plantioaldearen Mendi Babesgarria izendapena eskatu
	04.07.01: Informazio gunea ezarri Basustagainan, ibilbide sareari buruzkoa
	04.08.02: Basoberriaren Mendi Babesgarria izendapena eskatu
	04.09.01: Beduako irla berreskuratu
	04.11.01: Beduako ontziola zaharberritzeko proiektua
	04.11.02: Bedua auzoaren osotasunezko berreskuratze eta zaharberritze proiektua
	05.04.01: Baso mistoa berrezarri Dornutegin
	06.02.03: Informazio gunek Soburutzaldean
	06.02.04: Urlehortarrentzako urmaelak egokitu
	06.04.02: Mantzisorreko lursailak desjabetu
	06.04.03: Mantzisorreko lursailetan haltzadi kantauriarra berrezarri
	06.05.01: Ingurumen Ikuskatze-Programaren Kontrola (A-8 autobidea)

5.Taula Jarduketak lehentasun mailaren arabera.

5. Kapitulua JARDUKETA GLOBALAK

Esku-hartze azpiero bakoitzean adierazitako jarduketaren deskribapenarekin hasi baino lehen, arloko zenbait proposamen jasotzen dituen kapitulu bat erantsi da; horiek ulertzeko esparruaren osoko ikuspegia behar da.

Arloko proposamen horietatik eratorritako jarduketa zehatzak dagokien esku-hartze azpieroetan sartu dira.

5.1. INGURUMEN-INFORMAZIOAREN JENDARTERATZEA ETA SENTSIBILIZAZIOA

Urolaren itsasadarraren babesa eta kontserbazioaren arrakasta ala porrota, espazioko bizilagunen eta erabiltzaileen ezagutza maila eta ingurumen-sentsibilizazioari lotuta daude, halaber. Inguruaren ezagutza eta horrekiko sentikortasun maila handiagoak pertsonen espazioarekiko atxikimendua areagotu dezake, haiena dela sentiaraziz, horren babesa eta kontserbazioan aktiboki parte har dezaten. Elkarlana hainbat mailakoa izan daiteke eta espazioaren erabilera ona egitetik, hori hobetzeko jarduketetan, hala bakarka nola taldean (auzolanak, talde antolatuak, etab.), parte hartzera joan daiteke.

Kasu horretan, gainera, geoparkearen inguruan antolatutako jarduketaren aurretiko esperientzia dago, zeinen jarduera-ildoetako batek alderdi hori azpimarratzen baitu, inguruaren natur balioak jendarteratzen dituen ibilbideen sorreran eta bisita gidatuetan gauzatu dena. Azken finean, babestu nahi den natur eta kultur inguruneari buruzko kontakizun sinesgarria eta erakargarria sortzean datza, ingurunearekiko errespetutik abiatuta eta hori kaltetu gabe.

Idazpuru honetan Ekintza Planaren barruan ingurumen-informazioaren jendarteratzeari eta sentsibilizazioari dagozkion proposamenak aurreratuko dira, arreta bi alderditan jarrita: ibilbideak eta behaketa-guneak.

5.1.1. Ibilbide didaktikoak

Ibilbide didaktikoen proposamenak honako alderdi hauek izan ditu kontuan:

- Batasunaren intereseko habitaten edo funtsezko elementuen gaineko eragin zuzena saihestu edo minimizatzea.
- Ahal den neurrian, dagoeneko bazeuden bidexkak edo azpiegiturak erabiltzea.
- Beharrezkoak diren bidexkak edota azpiegiturak paisaia-integrazio irizpideei jarraituz egokitzea, eginahalaz, azpiegitura lan berriak egin gabe.
- Natur, paisaia- edo kultur interesa duten esparruak lotzea edota konbinatzea.

Lau ibilbide dira eta, horien artean, ibiltarte ertaineko ibilbideak edo inguru zehatzak zeharkatzen dituzten bidezidor didaktikoak aurki daitezke. Honako hauek dira:

1.- Zumaia-Artadi-Bedua-Basusta-Zumaia ibilbidea

Ibiltarte ertaineko ibilbide zirkularra da, 7,3 km-koa, eta herrigunetik sarbidea duena (Estazioa-Basustagaina). Zumaia herrigunea Artadiko eta Beduako auzoekin lotzen du, babesturiko eremua inguratuz, unean uneko sarraldi batzuetan izan ezik (Gorostiaga, Bedua eta Basusta).

Ibilbidea estuarioaren erdiko tarteen ikuspegi zabala ahalbidetzen duten puntu anitzek ezaugarritzen dute, eta horiek espazioaren natur balioak jendarteratzeko erabil daitezke, ikuspegi ezin hobeaz gozatzeko aukera emateaz gain. Arestian aipatu bezala, ibilbideak Artadiko zein Beduako auzoekin lotzen du Zumaia, kultur ikuspuntutik garrantzi handieneko bi elementurekin, zeintzuen balioek bidearen natur ikuspegia osatzen baitute.

Alderik txarrena da ibilbidearen zati bat errepidetatik igarotzen dela, Santixo-Artadi (1,2 km GI-3811tik) eta Bedua-Basustagaina (0,4 km GI-3760tik) tartetetik, zehazki. Azken horretan arriskua handiagoa da, errepideak zirkulazio handiagoa duenez gero. Kasu bietan, eta bereziki bigarrenetan, ibilbidean sartzeko ertzeko bidexka bat antolatu beharko litzateke (plataformaren alboan edo bazterbidearen parte gisa); Santixo-Artadi tartean kontuan izan beharko da, Artadiko auzoan aurreikusitako hirigintza-garapenaren ondoren, errepidearen birmoldatzea egiten bada; Bedua-Basustagaina tartean, aldiz, eskumena GFAko Mugikortasun eta Bide Azpiegituren Sailarena da, eta horri berari dagokio proposamena onartzea.

Gainerakoan, ibilbidearen zenbait tarte toki-bide asfaltatuetatik (2,0 km), baserritarako sarbideetatik San Miguel Artadi-Txantonenea) edo J.M. Korta industrialdearen barruko bideetatik igarotzen dira. Beste tarteak pistetatik, ibaiertzeko ibiltokietatik edo herri-bideetatik joaten dira.

Plan Bereziak bi tartetean baino ez du jarduketarik proposatzen, gaur egun trazadura irekirik ez dutelako edo egoera txarrean daudelako.

- Lehenengo tarte Txantonenearen eta Gorostiagako ibarraren arteko lotura da. Gaur egun herri-erabilerarako itxita dagoen herri-bide tarte bat da. Jarduketa 4-05 '*Sanmigelbaso*' azpieroemuen jarduketa-fitxan definitu da.
- Bigarren tarte Basustagainaren eta Basadizarren arteko lotura da. Kasu horretan bi puntuak pinudiaren barrutik igarotzen den bidezidorraren bidez lotzea proposatzen da. Bidexka Basustagainatik pasatzen den pistaraino luzatu beharko litzateke. Jarduketa 4-06 '*Basustagainako mendi-mazela*' eta 4-07 '*Basustagaina*' azpieroemuen jarduketa-fitxan definitu da.

Bestalde, lau behaketa-elementu sortzea proposatzen da: horietako bi, puntu garaietan kokatuak, begiratokiak izango lirateke (Artadi eta Kanteragaina); beste bi guneak kota baxuagoetan egongo lirateke eta hegazti-fauna behatzeko guneak izango lirateke (Basadizar eta Gorostiaga).

Elementu horiez gainera, argibiderako panelak ezartzeko gune komenigarriak izan daitezkeen sarbideak identifikatu dira, horietan informazio kartografikoa eta espazioaren balioei buruzko testuak konbinatuko lirateke.

Irudia edota planoetan jasotako adierazpide grafikoak orientaziorako gida funtzioa betetzen du, eta elementuen behin betiko kokapena azpieroemuen dagozkien hirigintza-fitxetan definitu da, edo berariazko proiektuetan definituko da, horrela aurreikusten bada.

2.- Artadi-Oikia ibilbidea

Ibilbide hau aurrekotik abiatzen da eta Artadiko eta Beduako auzoak lotzen ditu, Dornutegiko ibarretik. 1,8 km luze da eta ikusizko kalitate handia duen nekazaritza-paisaia erakusten du, Dornutegi eta Oikiako ibarrek eratutakoa. Paisaia-balio nabarmena izateaz gain, ibilbideak lurraldearen nekazaritzako erabilerara hurbiltzen du bidaria. Kultur intereseko elementuak ere baditu, Mantzisorreko zubia kasu.

Ibilbidearen ingurabide bat Sorburutzetik Errotagaingo zubirantz desbideratzen da eta ibaiaren eskuin ertz guztia (1,4 km) igarotzen du. Aurreko kasuan bezala, kalitate handiko nekazaritza-paisaia da.

Ibiltartea toki-bide asfaltatuetatik edo pistetatik igarotzen da, zirkulazio txikiko baserrietarako sarbideetatik. Horiek ez dute jarduketa osagarrien beharrik Ekintza Planaren aldetik.

Arestian bezala, espazio babesturako sarrera guneeetan argibiderako panelak ezartzea proposatzen da. Kasu honetan, hautazko kokapenak Sorburutz, Yartza-Mantzisor eta Errotagaingo zubia dira.

3.- Santixoko bira

Santixoko auzotik abiatzen den ibilbide honen jomuga Santixoko padurari eta hondartza-sistemari dagozkion eremuen erabilera arautzea da, Santixo hondartzaren aisialdi erabilerarekin bateragarria izan dadin. Bestalde, esparru horren ingurumen-balioak jendarteratu eta horiekiko sentsibilizazioa bultzatu nahi da, espazioaren funtsezko elementuak baitira, herritarren lankidetzaz lortzearen eremua babesteko.

Ibilbidea, dunaren erabilera intentsiboaren ondorioz, dagoeneko bazeuden trazaduretan oinarritutako bidezidorren sarea da. Guztien artetik, sare mugatuago bat aukeratu da, eremuaren erabilera eta gozamina (paseoa, korrika egitea, etab.) ahalbidetzen duena eta intereseko habitaten babesarekin bateragarria dena.

Kirol portuko terrazaren mutur batean, hegazti-fauna behatzeko puntu bat ezartzea aurreikusi da, padurara begiratuko duena. Bestalde, argibiderako panelak edo guneak ezar litezke sartzeko leku nagusietan.

Aurreikusitako jarduketa zehatzak 1-02 '*Santixoko dunak*' eta 1-03 '*Santixoko padura*' azpieremuetako jarduketa-fitxetan definitu dira.

4.- Artadiko bira

Kasu honetan ere, Artadiko basoan zehar igarotzen diren bidezidor nagusiak hauteman eta ibilbide sare bat ezartzea aukeratu da, intereseko habitat horren erabilera, gozamina eta hurbiltasuna posible egiteko. Gainera, ibilbidea Urolaren bokalearen eta Santixoko inguru guztiaren ikuspegi zabala duten guneeetara iristen da.

Sarea dagoeneko bazeuden bidexketatik ateratzen da, horietako batzuk sasitzak itxita daudela, eta, kasuren batean, badira segurtasunari loturiko zenbait gabezia. Bidezidorren multzoa 1,7 km luze da eta horretara ibilbide zirkularraren zenbait puntutatik sar daiteke, GI-3811 errepidetik (PK 0+150 eta PK 0+820 gutxi gorabehera), besteak beste.

Bidexkei dagokienez, jarduketa nagusia sastrakak kentzea eta, puntu batzuetan, zorua egokitzea izango da. Horrez gain, eroriko arriskutsuak saihesteko segurtasun neurriak (egurrezko eskudela edo antzekoa) jartzea eskatzen duen punturen bat ere hauteman da.

Halaber, bi behaketa-elementu sortzea proposatzen da, horiek behatoki eta argibiderako gune funtzioak izango dituzte, eta gune garai batean eta mendebaldeko hegalean kokatuko dira, hurrenez hurren. Lehenengo kasuan, elementua ezartzeko aukera ematen duten bi leku aurkitu dira. Bestalde ere, aurretik aipatutako sarbideetan argibiderako guneak jartzeko aukera aurreikusten da.

Jarduketa horiek guztiak 3-04 'Artadia' azpieremuaren jarduketa-fitxan zehaztu dira.

5.- Zumaia-Bedua-Zumaia

Azkenik, ibaian zeharreko ibilbide bat proposatzen da. Itsasadarren potentzial didaktikoa baliatu nahi da, agertokitik bertatik, espazioaren beste ikuspegi bat izateko. Itsasadarreko bizilagunek, batez ere iraganean, erabiltzen zuten ibilbidea da, gaur egun ere baliatua den arren gutxiago igarotzen dena.

Ibilbideak kultur eta historia-balioak (Beduako lonja eta ontziola), natur balioak (Beduako uharteetako fauna eta flora), paisaia-balioak (Artadiko hegaleak, ur-lamina bera), aisialdi balioak, etab. biltzen ditu. Babeserako eta atsedenerako guneak izango lituzke, Floresko zelaigunea (eskuin ertzean) edo Beduako auzo bera, adibidez; azken horretan ontziola zaharraren lehengoratzeari proposatzen da. Kasu bietan, eremua egokitzeko lan errazak proposatzen dira, atsedenerako erabilia izan edo uretatik bertara iritsi ahal izateko. Hori guztia 'Floresko ontziralekua' eta 4-11 'Beduako auzoa' azpieremuen jarduketa-fitxetan jaso da.

Nolanahi ere, aintzat hartu behar da eremu hauskorra dela eta zenbait gunetan babes zorrotza behar duela. Horregatik ibilbidea ubide nagusitik itxuratu da, Usurbiribillaga uharteetan edo bigarren mailako ubideetan inolako eraginik izan ez dezan. Ibilbidea arraunean joateko (piraguaz, txalupaz, etab.) eta bisita gidatuko duen pertsona batek antolatua eta gainbegiratua izateko pentsatua dago.

5.1.2. Jendarteratzeko eta sentsibilizatzeko guneak.

Aipatu ibilbideen osagai moduan, ingurumen-informazioaren jendarteratzean eta sentsibilizazioan laguntzeko zenbait elementu identifikatu dira, honako hiru mota hauetan banatu direnak:

1- Informazio-guneak

Hauetan informazioaren ikusizko igorpen praktikoa nagusituko da, espazio babesturako sarrera puntuetan jarriko diren panel bertikal edo makurtuen bitartez.

Informazioa mota anitzekoa izan daiteke: kartografikoa, toponimikoa, intereseko fauna eta flora espeziei buruzkoa, espezie inbaditzaileen ingurukoa, erabileren arautzearen gainekoa eta abar.



1. Argazkia Informazio-gune baten adibidea.

2- Begiratokiak

Paisaia behatzeko guneak dira, ikuspegi panoramiko zabala izatea ahalbidetzen duten lekuetan edota ikusizko kalitate handiko eremuetan kokaturikoak.

Ez dute instalazio handien beharrik, segurtasun neurriei loturikoak salbu, eta horietan behatutako zonak ezagutzeko informazio kartografikoa eta toponimikoa egon daiteke, panel makurtuen bitartez.

3- Hegaztien behatokiak

Hegazti-fauna behatzeko guneak dira eta, horiek asaldatu gabe, hegaztien atsedean eta babeslekuak ikustea ahalbidetzen duten puntuetan kokatzen dira.


Izari txikiko eraikuntzetan pentsatu da; gai naturalez egingo lirateke eta antzeko eremu babestuetan eta pareko funtzioa dutenen ildo jarraituko lukete.



2. Argazkia Hegaztien behatoki baten adibidea (Txingudi).



3. Argazkia Behatoki baten barrualde baten adibidea (Mendixur).



4. Irudia Ibilbideak eta ingurumen-sentsibilizazioa. Egilea: EKOLUR, SLL.

5.2. NABIGAZIOA ETA IBILGUARI LOTURIKO JARDUERAK

Atal honetan, nabigazioaren praktikarekin eta itsasadarraren ibilguarekin loturik dauden aurreikusitako jarduketa batzuk deskribatuko dira.

Proposatutako jarduerak indarrean dauden legeek ezartzen dutenaren mende daude. Urolaren itsasadarraren kasuan ondoko hauek dira:

- Irailaren 5eko 2/2011 Legegintzako Errege Dekretua, Estatuko Portuei eta Merkataritza Ontzidiari buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duena¹.
- Maiatzaren 18ko 638/2007 Errege Dekretua, Itsas Kapitaintzak eta Itsas Barrutiak arautzen dituenak.

Urolaren itsasadarraren ibilguan, tartearen arabera, erabilera ezberdinak egiten dira. Erabileren arautzea eta eremu horietarako jarduketak ezartzerakoan hiru tarte bereizi dira:

- Bokalearen tarte: funtsean 'Kaia' eremuarekin bat dator eta 2-01 'Urolaren bokalea' esku-hartze azpieremuaren barruan dago. Nabigazio-ubideak erabilera intentsiboa du: ontzi motordunak (belaontziak, yateak, txipiroitarako ontziak, etab.), amarralekuak (ezkerreko ertzean), dragatzeak (ubidearen sakonera), zerbitzuak (Santixo hondartzarako garraioa), aisialdia (arautu gabeko bainua, piraguan ibiltzea) eta kirola (arrauna, piraguan ibiltzea).
- Trantsizio-tarte: Zubiberria zubia (N-634) eta Basustako industrialdearen arteko tarte, 3-01 'Urola I' azpieremuari dagokio. Ez da aurrekoa bezain intentsiboki erabiltzen. Lehenengo zatia, Zubiberria zubia eta trenbideko zubiaren artekoa, erabilera ezberdinak dituen trantsiziozko tarte da: hiri-erabilera intentsiboa (amarralekuak), aisialdia (piragua, arrantza), kirola (piragua, arrauna). Aldiz, trenbidearen zubitik aurrera, herrigunetik aldentzen goazen heinean, erabilera murrizten doa, bereziki ontzien amarralekuei dagokienean.
- Gainerako ibilgua: Basustatik uretan gorako tarteari dagokio eta 4-02 'Urola II (EDAR Basusta-Bedua)', 5-01 'Urola III (Bedua-Yartzako ubidea)' eta 6-03 'Urola IV (Yartza-Errotagain)' azpieremuak biltzen ditu. Erabilerak aurreko tartetean baino murriztagoak (arrantza, piragua eta arrauna, funtsean) eta intentsitate baxuagoak dira.

Plan Bereziak erabilerak arautzea eta honako alderdi hauek antolatzea proposatzen du:

- a Motordun nabigazioa: nabigazio-abiadura hiru korapilora mugatzea estuario osoan, portuko eremuko nabigazio-ubidean egun ezarrita dagoen moduan.
- b Amarralekuak:

¹ "(...) gaur egun, arau xedapen osatugabeek, arau izaerakoek eta estatuko legeriaren osagarri legez aplikatzen direnek eraentzen dituzte EAEren titularitateko portuak, baina oraindik ez dago Euskadiko portuen sektorea osorik arautzeko araudi propioa". Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen irizmena Euskadiko Portuen legearen Aurreproiektuari buruzkoa. 2012ko urtarila.

- ⇒ arrantzarako edo aisialdirako ontzi txikien amarralekuen instalazioa antolatzeke xedeaz, eta, aldi berean, natur interes handieneko eremuak babesteko, ontziak amarratzeko gune batzuk ezarri dira. Zona horien identifikazioa egungo okupazioan oinarritu da, hedadura herrigunetik gertuko ibaiertzetara murriztuz, eta intereseko habitaten edo ingurumena lehengoratzeko behar duten eremuen gaineko eragina ahalik eta gehien txikituz. Hiru tarte dira eta elkarrekin 1.030 m-ko luzera dute.
- ⇒ Tarte horien barruan, ontzi tradizionalak lotzeko guneak erreserbatzea proposatzen da.
- ⇒ Erakunde eskumendunei amarralekuetarako diseinu homogeen bat ezar dezaten eskatuko zaie, paisaia-integrazio irizpidearekin bat etorriko dena.

c Ontziratze-lekuak:

- ⇒ Itsasadarraren eskuineko ertzean, Santixoko eremuan, dagoen ontziratze-lekua nabigazio ubidean eta barraderan aurrerago mugitzea proposatzen da, egungo kokalekutik 100 bat metro aurrera. Ontziratze-lekuaren kokalekua hiri-hondartzak izan duen eboluzioaren eta duna-sistemako zona babestuen mugarritatzearen arabera egokituko litzateke.
- ⇒ Narrondo ibaiaren bokalearen ondoan dagoen ontziratze-lekua tokiz aldatzeko aukera aztertuko da, izan ere, puntu horretan sortzen den sedimentazio handiak ontziralekuak oztokatzen baititu; kokagunea bokalerantz 85 bat metro aurreratzeko aukera gogoan hartuko da, dagoeneko han eskailera batzuk badira eta.

d Atsedenerako eta babeserako gunea: ibilbideei buruzko atalean aipatu den moduan, nabigaziorako (piragua, arrauna) atsedenerako gune bat sortzea proposatzen da 3-03 '*Floresko ontziralekua*' azpieremuan; proposamena azpieremuaren jarduketa-fitxan zehaztu da.



5. Irudia Nabigaziorako elementu lagungarrien proposamena. Egilea: EKOLUR, SLL.

5.3. EHIZA

Plan Bereziaren esparruan egiten diren erabileren eta jardueren arautzeak eremuan hautemandako natur balioen babesarekin eta kontserbazioarekin bat etorri behar du. Natur balio horien artean, intereseko fauna espezieen presentzia eta, bereziki, hegaztidiarentzako atsedon hartzeko eta elikatzeko eremu gisa egiten duen funtzioa azpimarratu da. Aintzat hartu beharreko beste alderdi garrantzitsu bat esparruko biztanleen eta erabiltzaileen segurtasuna da, horretan lehen sektoreari loturiko jarduerak (nekazaritza, basogintza, landa turismoa) eta kirol zein aisialdi jarduerak (nabigazioa, arrantza, zeharkaldia) elkartzen dira eta.

Gaur egun, Plan Bereziak antolatutako esparrua, Zumaia, Zestoa eta Getariako gainontzeko udalerrriak bezala, 'Urola Kostako ehizaleku kontrolatua' delakoaren parte da, ehiza larriaren jarduerari dagokionez, zeina GFAko Mendi eta Natura Ingurumenaren Zuzendaritzaren mende baitago.

Indarrean dagoen ehizari dagokion araudiaren eta hortik eratortzen diren mugen arabera, herri-urak, uren ibilgua eta ur-bazterrak barne, 'Segurtasun-eremuak' dira, eta ur-masak, bai eta horien aldameneko eremua ere, 'faunaren babesleku' gisa joko dira, espresuki izendatu beharrik gabe (otsailaren 12ko 2/2011 Legeak, Ehizarena). Segurtasun-eremu dira, halaber, ibilbideak eta herri-erabilerako bideak, trenbideak, bidegorriak, hiriguneak eta landaguneak, nekazaritza-turismoko etxeak, landa-etxeak, isolatutako eraikin bizigarriak, aisialdiguneak, enpresa- edo industria-instalazioak, lehentasunezko nekazaritza-ustategien instalazioak, aldian-aldian jendea hartzen duten tokiak, jendea

bertan dagoen bitartean, zortasun-eremua, itsasertzeko barruko mugatik lehor aldera neurtuta, etab. Horietako bakoitzerako Legeak segurtasun-eremuak ezartzen ditu (27. artikulua).

Lege horrek berak honako hau ezartzen du *Gune babestuak* 26. artikuluan: “*Lege honen ondorioetarako, ehiza-araubide bereziko lurtzat joko dira naturgune babestuak eta ingurumenaren arloko nazioarteko legedi bidez babestutako guneak. Lur horietan ehizan aritzeko, kontuan hartu beharko da gune bakoitzaren erabilera arautzen duten xedapenetan eta lege honetan eta hura garatzen duten jasotakoa*”. Eskualde biogeografiko atlantikoko ibaietako eta estuarioetarako, zeintzuen artean ‘ES2120004 Urola Itsasadarra’ baitago, onartutako Araudiak² ondokoa dio: “*Estuarioen eremuetan, eta kontserbatu beharreko hegazti-faunako espezieek atseden hartzeko eta elikatzeko toki oso garrantzitsuak diren aldetik, alor horretan eskumena duen erakundeak ehizatik babestutako guneak sortzea sustatuko du, edo antzekoren bat, ehizari buruzko araudia garatzen denean*”.

Plan Bereziak antolatutako esparruaren ezaugarrietan oinarrituta, zeinaren barruan ‘ES2120004 Urola Itsasadarra’ KBE baitago, eta segurtasun-mugen gainjartzea dela eta (ibilgu, herri-erabilerako bide, hirigune eta landagune, isolatutako eraikin bizigarri, enpresa- edo industria-instalazio, bidegorri, trenbide, nekazaritza-ustiategi eta abarrei ezarriak), Plan Bereziak ‘Faunaren Babesleku’ figura antolatutako esparru guztira zabaltzea proposatzen du. Izendapena foru erakundeei dagokie (2/2001 Legearen 24. artikulua) “*Foru-erakunde eskudunek faunaren babeslekuak eratu ahal izango dituzte, biologiaren, zientziaren edo hezkuntzaren arloko arrazoiak direla medio, espezie jakin batzuen biziraupena bermatu behar denean*”.


Hortaz, gaian eskuduna den organoari, kasu honetan, Gipuzkoako Foru Aldundiko Mendi eta Natura Ingurumenaren Zuzendaritzari, eskatuko zaio Plan Bereziaren esparru guztia ‘Faunaren Babesleku’ izendatutako eremu batean sartzea ehiza-xedeetarako.

5.4. HERRI ONURAKO MENDIA ETA MENDI BABESGARRIA

Artadi eta Beduako artadiak Gipuzkoako itsasertzeko artadi kantaurren ordezkaritzarik onenetako bat eratzen dute, paisaia-kalitate handikoa; gainera, haien kokapena dela eta, Urolaren estuarioaren multzoa ikusteko behatoki paregabea eratzen dute. Haren paisaia-balioaz gainera, eremuaren balio ekologikoak ere nabarmentzekoak dira, izan ere, bertan EAEn eta Gipuzkoako Lurralde Historikoan mehatxaturik dauden edota bitxiak diren flora eta onddo espezie ugari aipatzen baitira.

Bestalde, estuarioa tarte horretan mugatzen duten hegai basotsuek malda latzak dituzte, maiz %50 baino goragoko baliokoak; faktore horrek eremu horietan egin daitezkeen erabilerak mugatzen dituzte eta haien harrera-ahalmenak zehaztu landaredi iraunkorra mantentzea eskatzen du, bazkarako erabiltzen ziren eta azkenaldian luizi prozesuak jasan dituzten hainbat zona hauteman dira eta.

² 1. Dokumentua. Baterako jarraibideak, araudiak eta jarduerak.




6. Irudia %50etik gorako maldak dituzten eremuak. Egilea: Ekolur, SLL.

Gipuzkoako Mendien 7/2006 Foru Arauak mendiek, dituzten ezaugarri bereziak direla eta, herri onurako edo mendi babesgarri izendatzea jaso ahal izateko baldintzak ezartzen ditu. Baldintza berberak dira kasu bietan eta Foru Arauaren 10. artikuluan deskribatzen dira; bi izendapenen arteko ezberdintasuna titulartasunean datza: lehenak publikoak dira, bigarrenak, aldiz, titulartasun pribatukoak. Jarraian 3-04 'Artadia', 4-05 'Sanmigelbaso', 4-06 'Basustagainako mendi-mazela' eta 4-08 'Kanteragaina' azpieremuetan hauteman diren baldintzak aipatuko dira:

- Higadura prozesuen aurrean lurzorua babesteko beharrezkoak direnak.
- Erregimen hidrologikoari modu erabakigarrian laguntzen diotenak beste horiek, elur-jausiak, uraldiak eta uholdeak saihestuz.
- Lurren eta arroken jausiak saihestu edo murrizten dituztenak.
- Aurreko hiru puntuetan azaldutako ezaugarriak egungo egoeran erabat bete gabe basotzera edo basoberritzeko hobekuntzara bideratutakoak, horietan adierazitako helburu babesgarriekin.
- Aniztasun biologikoa zaintzen laguntzen dutenak, sistema ekologikoen bidez, landareak eta animaliak babestuz edo dibertsitate genetikoak zainduz eta, bereziki, babestutako gune naturalak, hegaztientzako babes bereziko zonak, babes bereziko zonak edo babesteko legezko beste figura batzuk direnak edo zati direnak, baita paisaiaren elementu garrantzitsuak direnak ere.

Eremu horiek aipatu baldintzak betetzen dituztela ulertuta, Plan Bereziak zera eskatuko dio organo eskudunari (baso administrazioari): herri jabariko lurzatiak 'Herri Onurako Mendi' eta, 3-04, 4-05, 4-06 eta 4-08 azpieremuetako titulartasun pribatuko lurzatiak 'Mendi Babesgarri' izenda ditzan.



7. Irudia Herri Onurako Mendi ala Mendi Babesgarri izendatuak izateko proposatu diren azpieroak. Egilea: Ekolur, SLL.

Foru Aldundiaren eskumena da administrazio bidean katalogoko mendien mugaketa egitea. Mendien herri erakunde titularrek eskatuz gero, Foru Aldundiak katalogoan ez daude herri mendien mugaketa egin ahal izango du. Horrek eragindako gastuak eskatu duenaren kargura izango dira (21. art.).

Mendiak babesgarritzat jotzeko Diputatuen Kontseiluaren foru dekretua behar da, Baso Administrazioak espedientea tramitatu ondoren, beti ere mendien jabeek eta mendia kokatuta dagoen toki erakundeei entzunaldia eskainita. Bide bera jarraituko da sailkapen horretatik ateratzeko, babesgarritzat jotzeko kontuan hartu ziren baldintzak desagertzen direnean (35. art.). Mendi babesgarrien kudeaketa haien titularrei dagokie, eta eremu horretan baliabide naturalak nahiz basokoak planifikatu eta antolatzeak agiririk ez badute, Mendien Antolaketa Proiektua edo Kudeaketako Plan Teknikoa aurkeztu beharko diote Baso Administrazioari, foru arau horretako VI. tituluan aurreikusitako moduan (37. art.).

Gipuzkoako Foru Aldundiak babesgarri izendatutako mendiak erosteko lehentasun eskubidea, tanteatzea eta atzera eskuratzea izango ditu. Katalogoko mendi bateko finkak edo mendiak badira edo haien mugakideak, mugakide den mendiaren edo finka dagoen mendiaren jabe den administrazioak izango du erosteko lehentasun eskubidea.

6. Kapitulua JARDUKETAK ESKU-HARTZE EREMUEN ARABERA.

Jarraian proposatutako jarduketei dagozkien fitxak erantsi dira, esku-hartze eremuaren arabera sailkatuta.

Horrela, lehenengo esku-hartze eremuaren sarrera-fitxa erantsi da, A.I.1 Santixo kasu honetan, horren ondoren, azpiero bakoitzaren fitxak agertuko dira, eta, bakoitzaren barruan, horietan proposatutako jarduketak. Ordena honako hau izango da:

FITXAK
1 Santixo
1-01 "Santixo hondartza"
1-02 "Santixoko dunak"
1-03 "Santixoko padura"
2 Bokalea
2-01 "Urolaren bokalea"
3 Artadi
3-01 "Urola I"
3-02 "Zubiberria"
3-03 "Floresko ontziralekua"
3-04 "Artadia"
3-05 "Floresko nekazaritza gunea"
3-06 "Artadiko paisaiaren babesa"
4 Bedua
4-01 "Basadizar"
4-02 "Urola II"
4-03 "Usurbiribillaga"
4-04 "Gorostiaga"
4-05 "Sanmigelbaso"
4-06 "Basustagainako mendi-mazela"
4-07 "Basustagaina"
4-08 "Kanteragaina"
4-09 "Beduako irla"
4-10 "Beduako nekazaritza gunea"
4-11 "Beduako auzoa"
5 Oikiakoerriberak
5-01 "Urola III (Bedua-Yartzako ubidea)"
5-02 "Urolaren ibaiertzak (Bedua-Yartza)"
5-03 "Oikia-Dornutegiko nekazaritza gunek"
5-04 "Dornutegiko basoa"
5-05 "Torre"
6 Soburutzaldea
6-01 "Soburutzaldeko nekazaritza gunek"
6-02 "Urolaren ibaiertzak (Yartza-Errotagain)"
6-03 "Urola IV (Yartzako ubidea-Errotagain)"
6-04 "Mantzisidor"
6-05 "A-8 autobidea"